

SOLASEAN



Gaurko "solasean" Donostiako Kimika-Fakultateko Dekano berriari, Alberto Gonzalez Guerrero-ri bain zuzen, hurbildu gatzaizkio.

Elh. Eman diezaguzu, zure bizitzaren arri.

AGG. Donostian jaio nintzen 1939-ean. Zaragozako Unibertsitatean egin nuen lizentziatura, eta Kimika Zientzietako Doktoradutza

ere bai. Irakaskuntza eta ikerketak Nafarroako Unibertsitatean, Madrilgo "Universidad Complutense" delakoan, Genève-ko Unibertsitatean eta azken bost urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Kimika-Fakultateko, Kimika Organikoko departamentuan eraman ditut aurrera. Une honetan Irakasle Adjunto numerarioa naiz. Bestalde, Zientzi lanak alde batera utzita, lotura sendoak izan ditut kirol-munduarekin, atletismoarekin batez ere.

Elh. Zer deritzozu Euskal Herriko Unibertsitatea une honetan jasaten ari den egoeraz?.

AGG. Aurretik existitzen ez ziren

ren oinarrien sorketa eta sendoketan ari da orain E.H.U. Gaur egun eraikitzen ari garen oinarri hauetan errotuko da etorki zuneko E.H.U.

Elh. Bestalde, zu Gipuzkoako Campus-ko erretoreordea zara. Zeintzu di ra erretoreordego honek jorratu nahi dituen ekintza-lerroak?

AGG. Gipuzkoako Campus-a due la urte bete eratu zen formalki. Urte hauetan zehar, erretoreorde goaren jokabidea hiru puntu hau ek lortzean mamitu da bereziki:

1.- Donostian, orain dauden eta etorkizunean egon daitezkeen zentruak kokatuko direneko hiriaren zona mugatzen. Campus fisikoki bateratu bat mugatzea esan nahi da.

2.- Erretoreordegoaren zerbitzuei berezko lokal bat eta da gokion pertsonala lortzea. Lokal hau, noski, behin-behinekoa da eta Campus bateratua lortzen denean zerbitzuok bertan kokatu ko dira.

3.- Donostian dauden unibertsital estamentu desberdinak Gipuz koako Campus-ak berezko nortasuna duelaz jabe daitezen. Hau lor tzen den heinean, Unibertsitate/ /Gizarte erlazioak hestutu egin go dira eta, era berean, Gizartea

Unibertsitateak eskain diezaizkiokeen baliabideez hobekiro ba liatuko da.

Elh. Zein da, zure eritziz, ikerketaren egoera Estatu Espainolean?

AGG. Laburki esateko, zaharkitua, ogoa kentzeko modukoa eta etorkizunik gabekoa.

Elh. Ikerketaren egoera berdina al da E.H.U.-an?

AGG. Ez. Hasi berria da, baina etorkizunik badu E.H. ko ente publikoak esku artean dituzten posibilitate handiez konturatzen ba dira eta behar duen laguntza ematen badiote. Zentru eta elkarte pribatuei ematen ari zaien finantza l euskarri handia ez dut uler tzen, zeren eta zerga-ordaintzaileek emandako diruz egindako iket keten fruituz hauek bere onuran jabetuko bait dira.

Elh. Zenbaitzuren ustez, egun E.H.U.-an duhaqun kimika zientzien estudio en banaketa guztiz ilogikoa da. Zer diotzu honetaz?.

AGG. Galdera honi zehazki eta zuzenki erantzuteko esku artean orain ez ditudan zenbait datu beharko nituzke, hala nola, E.H.-ko

Elhuyar,8,2,1982

zenbat ikasle ari den estatuko
beste Unibertsitateetan Kimika
Zientziak ikasten,E.H.-ko Kimi-
ka-Fakultateen ikasle-kopurua

eta gure Herrian industria Ki-
mikoak izan dezakeen garapena-
ren aurreikuskitun bat eta abar.